



Getxo

bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas: Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Aurrekontu parte-hartzaileetan botu gehien lortu dituzten proposamenak dira Udalak parkeak eta lorategiak hobetuko, komun publikoak atonduko eta Aiboan igogailua ipiniko du

Udalerriko parkeak eta lorategiak hobetzeko proposamena izan zen bozkatuena 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, zein otsailaren 11an bukatu zen. Boto gehien lortu zituzten hurrengo proposamenak izan ziren: udalerriko hainbat gunetan komun publikoak jartzea eta irisgarritasuna hobetzeko igogailu bat jartzea Aiboako geltoki inguruko desnibela murrizteko helburuaz. Proiektu horiek aurrera eraman ahal izateko milioi euroko diru-partida erreserbatu dute.

Amaia Agirre Gobernu Irekiaren zinegotziak oso positibotzat jo du herritarrek izan duten parte-hartzea, udal aurrekontuei ekarpenak egin ahal izateko aurten lehenengo aldiz martxan jarri den honetan. *"Halere"*, esan du Agirrek, *"jarduerak sustatzen jarraituko dugu herritarren eta Udalaren artean gero eta harreman estuagoa eta aktiboagoa lortze aldera. Gure ustez, hautatutako proposamenek zerbitzua eta erantzuna emango dizkiete, hainbat jarduketa eta tematikatan, udalerriko auzo eta adin ezberdinetako pertsoneri"*.

Datuak

Hautatutako proposamenak honela sailkatzen dira jasotako puntuen arabera:

ORDENA	PUNTUAK	PROPOSAMENA
1	5002	Parkeak eta lorategiak hobetzea
2	4792	Udalerriko hainbat gunetan komun publikoak jartzea
3	4791	Irisgarritasuna hobetzea Aiboako geltoki inguruko desnibela murrizteko igogailu bat jarritz
4	4582	Gazteentzako ekimen gehiago
5	4527	Tokiko ekonomia sustatzeko jarduera gehiago
6	4359	Bidegorrien sarea zabaltzea eta hobetzea
7	4074	Areetakoa Geltokia plaza egokitzea
8	3139	Turismoa sustatzea



Getxo

bizi ezazu

Jasotako botuen kopurua 1076 izan zen (+ %9,1); haietatik, 978 baliiodunak eta 98 baliogabeak. 593 paperean aurkeztu ziren eta 483 online; 567 andrazkoenak izan ziren eta 411 gizonezkoenak. Adina kontuan hartuta, 572 boto-emaile 30-65 urte bitarteko pertsonak izan ziren; 334, 65 urtetik gorakoak; eta 72, 30 urtetik beherakoak.

Paperean emandako botuei dagokienez, auzoak kontuan harturik, Romo-Areetan 224 boto jaso ziren, Algortan 220 eta Andra Marin 98.

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fase honetan, hiru postontzi jarri ziren Algorta, Areta eta Bidezabalgo geltokietan, proposamenak jasotzeko. Halaber, boto-ontziak egon ziren Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan; gainera, informatzeko karpak ere kokatu ziren Algortako Geltokia plazan, Areetako Geltokia plazan eta Bidezabalgo geltokiaren inguruan, eta parte hartzeko aukera eman zen udal webgunean erabilgarri zegoen inprimaki digitala betez, edota inprimakia helbide elektronikora bidaltzeko eskaneatutako eranskin gisa.

(*) Para acceder a cortes de audio:

<http://www.getxo.eus/prensa>. **Contraseña: fotoscortes**

GetxoUdala



You Tube

Oficina de prensa: 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.